

BALIO PROPOSAMENA

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Kutsatzen ez duten kotxeen beharra asetzen dugu. Gaur egun kotxe batzuk asko kutsatzen dute eta kalte handiak egiten dituzte gure planetan, horregatik ingurugiroa errespetatzen duten kotxeak ekoiztuko ditugu. Gainera beste kotxe elektrikoetatik bereizten gaituen ezaugarri nagusia bateriaren kontsumoa eta kotxearen prezioa da. Autonomia askoko kotxeak dira gureak eta gainera gure prezioak beste konpainienak baino baxuagoak dira. Inork ez du gustuko 200kilometroko gelditzea bateria edo gasolina tankea betezera horregatik, sortu dugun teknologia berriari esker autonomia luzatzea lortu dugu.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Kotxe elektrikoen eskaria handia denez, gure kotxeak masan ekoiztuko ditugu eta horrek ekoizpen kostu txikiak edukitzea ahalbidetuko digu. Ekoizpen kostu txikiak ditugunez, kotxe elektrikoak prezio baxuagoan saldu ahalko ditugu. Ekoizten ditugun kotxeak diseinu modernoak, prestazio egokiak, eta berritasunak dakartzate (punta-puntako teknologia). Gainera bezeroei beraien gustuko pertsonalizazioak egiteko ahalmena dugu. Horrek beste marketatik bereiztea ahalbidetzen digu. Bestetik, ekoiztuko ditugun kotxeak azelerazio handikoak dira 0-100 km/h 2,5 segundotan, horrela bezeroek kotxearekin gehiago disfrutatu ahalko dute.

